

Galdera

Greziar literatura, Literatura greziarra, Greziako literatura: nola esan behar da?

Erantzuna

Guk **'greziar literatura'** esango genuke.

1/ Antzinate klasikoaz ari garela, ohikoak dira forma hauek: 'Greziar Literatura Klasikoa', 'Erromatar Literatura Klasikoa'.

2/ [178. arauan](#) zehazten da jatorria adierazten duten kasuetan (debar, bilbotar...), bi aukerak zilegi izanik ere —txinatar kultura zein kultura txinatarra—, oro har, **izenaren aurretik** jarri ohi direla izen bizidunekin (lapurtar idazleak, azpeitiar medikua...), bai eta bestelako izenekin ere **NONGOtasuna** nagusi denean, hala nola Europar Batasuna, Britainiar uharteak, Dinariar Alpeak...

Baina **izenaren ondotik** joan ohi da **NOREN** dagoenean esanahiaren atzean, hala nola Kongo Belgikarra edo Sudan Anglo-egiptoarra. **NOLAKO** esan nahi duenean ere eskuinetik: jatetxe txinatar (alegia, jatetxe txinatarrak esatean, ez dira adierazi nahi Txinako jatetxeak, sukaldaritza mota jakin bat erabiltzen duten edonongo jatetxeak baizik).

3/ Bestalde, *greziar* hitza, *Greziako* baino zehaztugabeagoa denez, egokia da testuinguru horretan. Hala, *greziar literatura* hurbilago dago 'greziarren literatura'tik, 'Greziako literatura'tik baino.

4/ Gogorarazi behar da, hizkuntzari erreferentzia egiten diogunean, badela instrumentala oinarritzat hartuta eraikitako atzizki bat: **-zko**. Hala, *grezierazko, italierazko, frantsesezko... literatura* litzateke kasu horretan egitura zuzena.

5/ 'Grezierazko literatura' diogunean, izan daiteke Greziakoa, Ziprekoa, Turkiako greziarra, diasporakoa... Era berean, 'alemanierazko literatura', Alemaniakoa, Suitzakoa, Austriakoa, Liechtensteingoa...

'Suitzako literatura', aldiz, alemanez, frantsesez, italieraz edo erromantzez... izan daiteke. Halaber, 'Greziako literatura' izan liteke herrialde horretan mintzatzen den beste hizkuntza batean idatzia: turkiera, mazedoniera...

6/ Gehiago jakiteko, ikusi honako hauek:

[Kontsulta-zerbitzua — Zalantzak, testuak eta beste](#)

(138. or.) Galdera: "*Hispaniar filologia*", "*Filologia hispaniarra*": nola eman behar da euskaraz?

(141. or.) Galdera: *non kokatzen da -ar atzizkia [aldaerak: -tar (-dar), -ztar] daraman adjektiboa?*

(43. or.) Galdera: "*herritarren zientzia*", "*zientzia herritarra*": nola eman behar da euskaraz?

[Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak — EIMA Estilo-liburua](#)

(155.or.) 6.1.2. *Herritarren izenak: -ar, -tar, -dar, -oztar...*

[Euskera — 44. libk. \(1999, 1\) — Euskaltzaindia.eus](#)

(639.-640. or.)